



ESPEDIENTE ZK.: 25

INTERESDUNA: PEDRO MARÍA CÍA GAZTELU JAUNA

INTERESDUNAREN NAN ZK.: 72.561.116-A

BALORAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

I.- AURREKARIAK

1) 107/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Pedro María Cía Gaztelu jaunak eskatuta izapidetutako espedienteaz aztertu du Balorazio Batzordeak. Espedientearen xedea zen Pedro María Cía Gaztelu jauna biktima izan zela aitortzea, eta 1972an eta 1975ean jasandako atxiloketengatik legokiokkeen ordaina ematea.

2) Batzordeak honako elementu hauek aztertu ditu eta haien balorazioa egin:

- Pedro María Cía Gaztelu jauna nor den egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Pedro María Cía Gaztelu jaunak 1972 eta 1975ean jasandako atxiloketen gainean egindako kontakizun idatzia.
- Pedro María Cía Gaztelu jaunaren lekukotasuna.
- Pedro María Cía Gaztelu jauna Bilboko elizbarrutiko apaiz gisa izena emanda zegoela egiaztatzen duen agiria.
- Noticias del País Vasco en el Estado de Excepción izenekoaren 1. buletina, 1975eko maiatzaren 28koa, eta 5. buletina eta 6. informazio-buletina, "torturas durante el Estado de Excepción" izenekoak.

II.- AURREKARIEN BALORAZIOA

1) Espediente honetan aztertutakoak gizarte- eta politika-testuinguru honetan gertatu ziren:

Diktadura frankistaren azken urteetan Euskadik bizi izan zuen indarkeria politikoaren egoeran kokatzen da Pedro María Cía Gaztelu jaunaren kasua. Lan-gatazkak (bereziki

garrantzitsuak Gipuzkoan eta Bizkaian) eta ETaren lehen atentatu hilgarriak zirela eta (1968an), erregimen frankistak errepresioa areagotu zuen mota guztietako oposizio eta protesta politikoen aurka. Orduraz geroztik, Ordena Publikorako Auzitegiaren jardura diktaduraren zapalkuntza-tresna garrantzitsuenetako bat izan zen, baina ez bakarra. Salbuespen-egoerak ezartzeak erregimen hartan onartuta zeuden askatasun apurretako batzuk desagerrarazi zituen.

Izan ere, garai hartan oso ohikoak izan ziren tratu txarrak eta torturak ordena publikoa zaintzeko ardura zuten indarretako kideen itaunketetan, bereziki ETAko eta indarkeria baliatzen hasi ziren antzeko erakundeetako kideekin zerikusia zuten kasuetan, baina, errealitatean, jokaera horrek talde horien metodoak ez bezalakoak erabiltzen zituzten beste erakunde batzuetako militante askori ere eragin zien. Garai horretan atxilotuei egindako tratu txarrei buruzko bibliografia zabala biktimen lekukotasun pertsonal ugariren bidez egiaztatu da. Susmagarrien aurkako lehen erasoak atxilo hartu bezain laster has zitezkeen, are atxilotuek aurka egin gabe ere. Atxilotze- eta itaunketa-zentroetara auto kamuflatuetan edo polizia-ibilgailuetan joaten ziren, eta atxilotuek poliziaren tratu txarra jasan ohi zuten bidaia horretan ere, irain, mehatxu, kolpe eta eraso etengabeek gain. Polizia-etxera iritsi ondoren, komisario batek edo Brigada Politiko Sozialeko kide batek itauntzen zuen normalean atxilotua. Itaunketetan, gogorrena atxilotuak poliziari "laguntzen" ez zionean iristen zen; hau da, leporatzen zitzaizkion delituekin zerikusia izan zein ez, eskatutako informazioa ematen ez zuenean. Sarritan, atxilotuak bakartu egiten zituzten, eta itxita uzten ziegetan, argia piztuta zegoela, lo egin ez zezaten. Nekearen nekez loak azkenean hartzen zituenean, oihuka esnatu, eta polizia-funtzionarioek beste gela batera eramaten zituzten. Biluzik jar zitzaketen, flexioak edo beste edozein ariketa egitera behartu, normalean atxilotuak nekarazi eta haien adorea ahultzeko. Atxilotuta zeudela, mehatxu egiten zieten, are hiltzearekin ere. Askotan, senide hurbilenak (bikotekideak, neba-arrebak, gurasoak eta abar) atxilotzearekin ere mehatxatzen zituzten, edo zuzenean haien atxiloketa simulatzen zuten. Poliziak emaitzarik lortzen ez bazuen, "galdeketa" txanda gogorak jasan ahal zituzten. Orokorrean, Estatuko segurtasuneko indarretako kideak txandaka antolatzen ziren, eta kolpe bortitzak ematen zizkieten behin eta berriz atxilotuari. Ukabilkadak eta objektu sendoak erabiltzen zituzten, baina tratu txar horiek zuzenean tortura basatiagoak eta sofistikatuagoak bilakatu zitezkeen; besteak beste, bañera izenekoa, plastikozko poltsa



batez itotzea, beste zenbait gauza batzuez kolpeak jotzea, buruan tiro egitearen simulazioa, eta zelai batera eraman eta han hiltzearekin mehatxatzea. Atxilotuak tratatu txar horiek eta torturak epailearengana eramaten zituztenean salatzen ausartzen baziren, magistratuak ez zuen kontuan hartzen salatutakoa, eta ez zen ezer ikertzen. Abusu-egoera eta defentsa-gabezia hori egokitu zitzairen erakunde politiko eta sindikaletako kide izateagatik atxilotutakoetako askori, edo horietakorekin batekin harremanen bat izan zezakeen delituren bat egin izanaren susmagarri zirenei.

Urte horietan zehar, frankismoaren kontra banaka edo modu antolatuan agertu ziren elizgizon asko ere harrapatu zituen errepresio hark, eta horientzat guztientzat diktadurak espetxe bat egokitu zuen (Zamorako konkordatu-kartzela), bertan kartzelaratu eta kondena betetzeko. Testuinguru horretan kokatzen da, hain zuzen ere, Pedro María Cía Gaztelu jaunari gertatutakoa.

2) Espedientean dauden froga-elementuak neurritz, zentzuz eta kontrastaraziz aztertu ondoren, Batzordeak Pedro María Cía Gaztelu jaunari zer gertatu zitzaion ondorioztatu du:

Pedro María Cía Gaztelu Anizko (Baztan) nekazari eta abeltzainen semea zen, eta Arantzazuko seminarioan sartu zen 11 urte zituela. 1968an, 24 urterekin, apaiz egin zen, eta, 1969an, apaiz langilea zen Bilbon. Enpresa desberdinetan egin zuen lan, eta, azkenean, "Busato" izeneko torloju-enpresa batean kontratu finkoa egin zioten.

Bilbora iritsi zenean, Burgosko prozesua zegoen martxan, eta bera, beste lankide batzuekin batera, goiz hasi zen askatasunaren aldeko borrokan.

1972ko otsailean edo martxoan, Brigada Politiko Soziala bere lanpostura joan zen, Pedro María atxilotzera, eta Indautxuko polizia-etxera eraman zuen. Bost egunez egon zen atxilotuta. Egun horietan, kolpe, ostiko eta irain ugari jasan zituen. Bera auzipetzen saiatu ziren, baina, horretarako, Bilboko apezpikua zen Antonio Añoveros Ataun jaunaren baimena behar zuten. Azken horrek ez zien baimena eman nahi izan, bere ustez ez baitzuten auzipetuko beharrezko berme judizialekin. Orduan, legeak atxiloketarako ezartzen zuen gehieneko bost eguneko epea igaro ondoren, aske utzi behar zuten, baina, hala ere, Basauriko kartzelara eraman zuten, eta bertan egon zen hilabete.

Ondoren, Carabanchelera lekualdatu zuten. Han zegoela, Ordena Publikorako Auzitegiaren 1001/1972 prozesuko prozesatu sindikalak ezagutu zituen. Epaiketa hartan, Comisiones Obreras sindikatuko zuzendaritzako hamar kide espetxeratu ziren ("los diez de Carabanchel"), Carabancheleko kartzelan bi hilabete inguru egon zen, eta, azkenean, aske utzi zuten, zergatik atxilotu zuten azaldu ere egin gabe.

Atxiloketa haren ondorioz, Pedro María Cía Gaztelu jaunak bere lanpostua galdu zuen "Busato" enpresan.

Hiru urte geroago, 1975ean, bere etxean zegoela (beste hiru frantziskotarrekin partekatzen zuen), berriz ere atxilotu zuten. Bigarren kasu horretan, bost egunez egon zen Indautxuko polizia-etxean. Tratu txarrak jasan zituen, eta flexioak egitera eta beste tratu iraingarri batzuk jasatera behartu zuten. Ondoren, berme-faltagatik Añoveros apezpikuak bera auzipetzeko baimenik eman ez zuenez, berriz ere eraman zuten Basauriko kartzelara. Basaurin beste lau apaizekin batera egon zen preso, horiek guztiak egoera berean. Lau apaizak honakoak ziren: Txomin Ibarretxe, Ibarruriko parrokoa; Olave, Busturia edo Mundanako parrokoa; Amiano, Durangaldeko herri bateko parrokoa; eta Fernandez, beste apaiz langile bat.

Pedro María Cía Gaztelu jaunak jasandako atxiloketek eta tratu txarrek ez diote ondorio fisiko edo psikologikorik utzi.

Inoiz ez zuen gertatutakoa salatu, ez eta argitara eman ere. Aitzitik, eta berriz ere atxilotua izateko beldur, Frantziara erbesteratu zen.

Gertaeretatik 38 urte igaro eta gero, Pedro María Cía Gaztelu jaunak giza eskubideak urratu zirela aitortzea nahiko luke, egiarako eta memoriarako eskubidean aurrera egiteko. Halaber, nazioarteko auzitegietan salaketa bat jarri aurreko urrats egokia iruditzen zaio.

Alde horretatik, Batzordearen nahia da Pedro María Cía Gaztelu jaunaren aurkako atxiloketak eta tratu txarrak gertatu ziren inguruabarren egiaztapentzat eta hark nahiz haren familiak jasandako sufrimenduaren aitorpentzat hartzea irizpen hau, memoria-betebeharra bete dadin.

III.- ONDORIOAK

1) Aurreko atalean jasotakoak (1972an eta 1974an gertatuak), Balorazio Batzorde honen iritziz, beharrezkoak eta nahikoak diren elementu guztiak jasotzen ditu, 107/2012 Dekretuko artikuluek eskatzen dituzten baldintza formal eta mamizko guztiak behar bezala betetzen direla ondorioztatu, eta Pedro María Cía Gaztelu jauna giza eskubideen urraketa biktima izan zela adierazi ahal izateko.

2) Batzordearen ustez, eta eskatzailearen aitorpenaosatzen duten informazio-elementuak bilatu ondoren, behar bezala egiaztatuta dago Estatuari 1972 eta 1975ean gertatutakoetan dagokion erantzukizuna. Pedro María Cía Gaztelu jauna bi aldiz atxilotu zuten, eta askatasunik gabe izan zuten hainbat hilabetez. Ez zen auzipetua izan eta ez zuen bere atxiloketari buruzko azalpenik jaso.

3) Aipatu episodioak ez zion ondorio fisiko edo psikiko garrantzitsurik utzi.

Azaldutako guztia dela bide, Balorazio Batzordeak

ERABAKI DU

Aho batez proposatzea aitortu beharrekoa dela Pedro María Cía Gaztelu jauna bere giza eskubideen urraketa biktima izan zela, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960ko urtarilaren 1etik 1978ko abenduaren 28ra bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, berak 1972an eta 1975ean jasan zituen gertaerengatik, eta kalte-ordainik ez ematea, Pedro María Cía Gaztelu jaunak ez baitzuen ondoriorik jasan atxiloketa eta tratatu txar horien ondorioz.

Egoera hori arintzeko asmoz, Balorazio Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari proposatzen die azken berrogeita hamar urteetan motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan Euskadin giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktima guztiak aitortzeko beharrezko arau-xedapenak ezar daitezela. Batzordeak, horrez gain, oroimenerako betebeharra kontuan har dezatela eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari, eta sar dezatela Pedro María Cía Gaztelu jauna biktima izan dela aitortzeko eta jasandako sufrimenduaren bidegabekeria gogorarazteko



jarduera kolektiboetan, 1972 eta 1975. urteetan pairatutako atxiloketetan jasandakoagatik. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari gomendatzen die eskaera bera egin diezaietela estatuko erakundeei, aztertutako gertaeretan hartako segurtasun-gorputz eta -indarrek izandako erantzukizuna kontuan hartuta.

Gasteizen, 2015eko maiatzaren 18an.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LEHENAKARIITZA
Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritza
Bereizpena eta Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritza

Izpta.: Monika Hernandez Porres

Balorazio Batzordeko burua

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria



27 JUN 2016

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

SARRERA	IRTEERA
Zk. —	Zk. 235909

Jaun /Andrea agurgarria:


Estimado/a Sr. Sra.:

Euskal Autonomia Erkidegoan, motibazio politikoko indarkeria egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa, 107/2012 Dekretuaren babesean aurkeztutako eskaera erantzuteko, eraturako Balorazio Komizioak egindako Diktamena itzulita, bidaltzen dizut.

En relación con la solicitud presentada en el ámbito del Decreto 107/2012, de declaración y reparación de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus derechos humanos, le adjunto el Dictamen traducido elaborado por la Comisión de Valoración, prevista en el precitado decreto.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 27an

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de junio de 2016


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

BIKTIMEN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE VÍCTIMAS Y DERECHOS HUMANOS

